



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Ostegun honetan Rossini abesbatzak Zarzuelaren momenturik onenak eramango ditu Arriaga Antzokira, oso musika-ikuskizun dibertigarri batekin

- Generoaren klasiko handiak interpretatuko dituzte *Zarzuela On Air 2.0* izeneko ikuskizunean, 50eko hamarkadako irratsaio baten gisan. Mitxel Santamarina eta Iñaki Maruri aktoreek gidatu eta girotuko dute ikuskizuna.

Bilbon, 2021eko apirilaren 20an. – Rossini abesbatzak *Zarzuela On Air 2.0* musika- eta antzerki-ikuskizuna dakarkigu ostegunean, hilak 22, arratsaldeko 19:00etan. Zarzuela-lanetako zatirik onenak berreskuratu ditu, eta modu eraberrituan, freskoan eta dibertigarrian eskainiko dizkigu, adin eta publiko guztientzako ikuskizun honetan. 50eko hamarkadan girotutako irratsaio entretenigarri eta originala ekarriko du oholtzara. **Iñaki Maruri** eta **Mitxel Santamarina** aktoreak dira zarzuela protagonista duen irratsaioaren gidariak.

Zarzuela On Air 2.0 ikuskizunean zarzuelako pieza ospetsuak bildu dituzte, hala nola *La verbena de La Paloma*, *El Dúo de la Africana*, *La del Soto del Parral*, *El Rey que rabió*, *Luisa Fernanda* eta beste zarzuela-lan batzuetakoak.. **Carlos Imaz** arduratu da ikuskizun honetako musika moldatzeaz, konposatzeaz edota zuzentzeaz eta Rossini abesbatzak **Juan José Ortega** izango du pianoan laguntzen. **Ana Begoña Hernandez**, bestalde, taldearen zuzendaritza eta prestakuntza musikalaz arduratu da.

Bigarren bertsio honetan, Zarzuela On Air 2.0 ikuskizuna Rossini On Air proiektu handiaren osagaietako bat da. Rossini abesbatzak sortutako proiektu handi horrek hainbat ikuskizun monografiko hartzen ditu, eta guztiek egitura bera dute: garai jakin batean girotutako gai baten inguruko musika-irratsaioa. Askotariko ikuskizunak eszenaratzen dituzte horrela, guztiak abesbatza-musikalak, musika onaz, umorez eta publikoarentzako une gogoangarriez betetakoak.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 21 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus